



## EUSKARAREN MUSIKA:

Bazen behin **txantxangorrien** familia bat. Ama, aita eta semea **habia** batean elkarrekin bizi ziren. Eki zuen izena semeak eta oso txori **bihurria** zen baita **zintzoa** ere.

Érase una vez una familia de **petirrojos**. Vivían todos juntos en un **nido**, la madre, el padre y el hijo. El hijo se llamaba Eki y era **travieso** pero también **formal**.

Egunero Eki altxatzen zen bere aitaren ahotsarekin:

—Egun on, **laztana!** **Esna zaitez!**

Gero, Eki ohetik altxatzen zen, bere arropa **janzten zuen** eta **sukaldera** gosaltzera joaten zen.

Eki se levantaba todos los días con la voz de su padre:

—¡Buenos días, **cariño!** ¡**Despierta!**

Después Eki se levantaba de la cama, **se vestía** e iba a la **cocina** a desayunar.

Bere aitak **zerealez betetako katilu bat** mahaian utzi zion eta Ekik **di-da** batean jan zuen.

Horrekin bat laranjazko **zukua** ere edan eta bere eskolako motxila hartu zuen.

—**Joateko ordua da!** —esan zuen aitak eta Ekik musu bat eman zion amari.

Su padre le dejó en la mesa un tazón lleno de cereales y Eki se lo comió en un **santiamén**.

Bebió un **zum**o y cogió la mochila del cole.

—**¡Es hora de marcharnos!**— dijo el padre y Eki le dio un beso a su madre.

Ekiren ama oso **berezia** zen. Ez zuen inoiz ezer esaten; hori bai, **abestea asko gustatzen zitzaien** eta beti **“txio, txio”** zebilen kantari. Ekik ez zuen ulertzen zergatik amak ez zuen inoiz tutik esaten. Bere mututasunak kezkatzen zuen.

La madre de Eki era muy **especial**. No decía nunca nada, eso sí, **le encantaba cantar** y siempre tarareaba **“pío, pío”**. Eki no entendía por qué su madre nunca decía nada.

Su mutismo le preocupaba.

Eki eskolan sartu zen eta bere lagunekin elkartu zen. Denok batera **ilara batean jarrita** gelan sartu ziren eta irakasleari “Egun on!” esan zioten eta honek: “Zer moduz zaudete? Gauza asko **ikasteko prest?**” Bakoitza bere lekuan eseri eta klasea hasi zen.

Eki entró a la escuela y se unió a sus amigos. Todos juntos **en fila** entraron en la clase y le dijeron: “¡Buenos días!” a la profesora. Y ella les contestó: “**¿Qué tal estáis?**” **¿Preparados para aprender** muchas cosas?” Cada uno tomó su asiento y comenzó la clase.



Egun horretan ikasi zuten nola sortzen diren koloreak:

**Horia** eta **gorria** nahasten baduzu, **laranja** ateratzen da. Horia eta **urdina**, **berdea** lortzen da. Azkenik, gorria eta urdina biak batera, kolore **morea** sortzen dugu.

Ese día aprendieron cómo se hacen los colores.

Si mezclas el **amarillo** y el **rojo** sale el **naranja**. Con el amarillo y el **azul** se consigue el **verde**.

Y por último, conseguimos el **morado** con el rojo y el azul.

**Bat-batean**, klasikide batek besoa igo eta zera bota zuen:

—Andereño, **txiza egiten ari naiz, komunera joan naiteke?**

—Bai, joan zaitetz lasai— erantzun zion andereñoak.

**De repente**, un compañero levantó el brazo y dijo:

—Profe, **me estoy haciendo pis. ¿Puedo ir al baño?**

—Sí, puedes ir tranquilamente— le respondió.

Hurrengo orduan musika klasea izan zuten eta Ekiri gustatzen zitzaion kanta bat egin zuten:

Después tuvieron clase de música e hicieron una canción que le gustaba mucho a Eki:

Aldapeko sagarraren  
adarraren puntan  
puntaren puntan  
txoria zegoen kantari.

En la punta de la rama  
del manzano de la cuesta  
en la punta de la punta  
un pájaro estaba cantando

Xiru-liruli, xiru-liruri,  
nork dantzatuko ote du  
soinutxo hori?

Xiru-liruli, xiru-liruli,  
¿quién bailará  
esa musiquilla?

Honen ostean **jolas-ordua** zen eta animalia guztiak patiora irten ziren **Eki izan ezik**.

Ekik andereñoari kontatu zion bere amak zeukan arazoa: ez zuela hitz egiten. Eta irakasleak esan zion lasaitzeko, modu bat edo bestean **egoera konponduko** zelako.

Después llegó la hora del recreo y todos los animales salieron al patio excepto Eki.

Eki le contó a su profesora el problema de su madre: no hablaba. La profesora le dijo que estuviera tranquilo y que de alguna forma se **solucionaría la situación**.

Eskola amaitu zen eta **etxerantzako bidea** hartu zuen Ekik. Horretarako, **baso** batetik pasatu behar zuen eta han zegoenean, soinu bat entzun zuen.

Soinuaren jatorrira **hegan egin** zuen eta ezkutatuta belarrez inguratuta **kutxa** bat topatu zuen.

Terminó el colegio y tomó el **camino a casa**. Pasó un **bosque** y allí escuchó un sonido.

Fue **volando** al origen del sonido y encontró una **caja** que estaba escondida rodeada de hierba.



Kutxa **ireki** eta idatzitako orri bat ikusi zuen. Testuak honela zioen:

**Eki** duzu izena eta, eguzkiak bezala, zeuk ere amari **argia** eman behar diozu.

Ama ez da **mutua** baizik eta ez dakiela euskaraz baina zure laguntzarekin pixkanaka-pixkanaka ikasiko du. **Joan zaitetz etxera** eta berarekin **hitz egin**. Elkarrekin euskaraz **distiratuko** zarete!

Abrió la caja y vio una hoja escrita. El texto decía lo siguiente:

Te llamas Eki como el **sol** y le tienes que dar **luz** a tu madre.

Tu madre no es **muda**, sino que no sabe euskera, pero con tu ayuda poco a poco lo aprenderá. **Ve a casa** y habla con ella. ¡Conseguiréis brillar juntos!

Orriaren azpian **musika tresna** bat zegoen. Oso soinu polita zeukan eta Ekik pentsatu zuen amak gustoko izango zuela. Musika tresna hartu eta oso azkar hegan egiteari ekin zion. **Ahalik eta lasterren** etxera heldu nahi zuelako.

Debajo de la hoja había un instrumento de música. Tenía un sonido muy bonito y Eki pensó que le gustaría a su madre. Cogió el instrumento y emprendió rápidamente el vuelo.

Quería llegar **cuanto antes** a casa.

Etxera heldu zenean amari esan zion:

— Amatxo, gaur **konturatu naiz** zergatik ez duzun hitz egiten. Euskara ez dakizulako baina **egon lasai**, nik irakatsiko dizut.

Amak **irribarre egin** zion eta **elkar besarkatu** zuten.

Quando llegó a casa le dijo a su madre:

— Ama, hoy me he dado cuenta de por qué no hablas, y es porque no sabes euskera, pero **estate tranquila**, yo te voy a enseñar.

Su madre le **sonrió** y se **abrazaron**.

Hurrengo egunetan Ekik hainbat hitz eta esaldi irakatsi zizkion amari: **Goazen kalera! Ondo lo egin!, Musu bat emango didazu?,**

Eta horrela, **poliki-poliki**, euskara ikasten hasi zen ama.

En los siguiente días Eki le enseñó varias palabras y frases a su madre: **¡Vamos a la calle!**

**¡Duerme bien! ¿Me das un beso?**

Y así **poco a poco a** su madre fue aprendiendo euskera.

Astebururo Ekik topatu zuen musika tresnarekin jolasten zuten eta **primeran pasatzen zuten**.

Eta gainera, abesti bat asmatu zuten. Kantaren izenburua: **Eman hegoak euskarari!**

Todos los fines de semana jugaban con el instrumento de música que había encontrado Eki y **lo pasaban genial**. ¡Se inventaron una canción y todo!

El título de la canción: **¡Dale alas al euskera!**